

OLENTZEROREN MALUTAK

Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Eider Eibar

Elkar, Donostia, 2007

Olentzero gaixotu zenekoa

Duela hamar bat urte hurrekin ari diren irakasleek Olentzeroren inguruko istorioak eskatzen zituzten. Ez zegoen euskal pertsonaia magiko horren inguruan egindako ipuin, kontakizun edo istoriorik. Urte batzuk pasa dira eta zorionez hutsune hori betetzeko hainbat liburu aurki daitezke gure denda edo liburutegietako apaletan; azkena esku artean dugun hau.

Juan Kruz Igerabidek ez du pertsonaia mitologiko honen historia kontatzen, pertsonaia honi gertatutakoak baizik. Are zehatzago esateko Olentzero gabon egunean gaixotu zen batean jazotakoak.

“Badator Olentzero mendian behera gau ilunean, inork ez ikusteko moduan. Hotz egiten du, zero azpitik bi.” esaldiarekin hasten da istorioa. Olentzero, etxera bidean, iturri batean garbituko da (“Hau kuxidada! Honela ezin naiz agertu kalean. Bazter guztiak zikinduko ditut.”, 6. or.) eta ondoren, gaixotu. Idazleak, pistak apur-apurka emanez, gertatuko denaren berri jakinarazten digu. Dardarka jartzen da Olentzero, eztarrian zerbait nabaritu, ziztada bat sentitzen du geroago... eta azkenik, berebiziko sastada.

Olentzerok ezin du hitz egin, ezin du hotsik egin... are gutxiago sendagilearen laguntza eskatu. Ipuineko une gorena, tentsio handiena, orduan nabari da, Olentzero bakar-bakarrik eta gaixorik aurkezten zaigunean, Euskal Herriko haur guztiek beren opariak espero dituzten egunean ohean geratu behar denean: “Zer egin? Gauerako sendatzen ez bada, milaka ume oparirik gabe geratuk dira. Jaikitzen hasi da. Gorputzak tona bat pisatzen dio. Hanka bat atera du, gero bestea, gero ukondoarekin bultzatuz jaso du gorputza, ohe ertzean eseri, txapinak jantzi, eskuak belaunetan ipuin eta behera bultzatuz zutik jarri da. Berrito eseri behar izan du, zorabioak jota.” (20-22. or.).

Orain arte Olentzeroren istorio ia guztiak pertsonaia horren lana eta izaera kontatzeko idatzi dira; orain, aldiz, Igerabidek urrats bat aurrerago egin eta Olentzerori jazotakoak kontatzeari heldu dio. Narrazioa eta ilustrazioaren arteko kontakizuna dugu liburu hau, Eider Eibarren irudiek –orri bikoak eta koloretan- album itxura ematen baitiote liburu honi. Testua deskriptiboa da, amaiera aldea kenduta ia-ia elkarrizketarik gabekoa, eta hirugarren pertsonan kontatua. Narratzaile orojakile horrek irakurlea prestatzen du apurka, Olentzero gaixotu eta, antza denez, ezingo du bere lana egin. Irudiek ere ederki osatzen dute testuaren informazioa, horretarako Eibarrek, batik bat, bi elementurekin jokatzen du: Olentzeroren irudiarekin (indartsu, makal, triste...) eta animaliekin, narrazioan ageri ez baina irudietan pisu handia hartzen duten animaliekin. Alde horretatik irudiak testua ulertzen laguntzeaz gain, osatu eta aberastu egiten du narrazioa. Hots, testuaren eta irudiaren harremana zuzena –eta aberasgarria- dugu liburu honetan.

Egileek liburuari eman dioten amaiera irudimentsua da, magikoa –pertsonaia bezala- eta zorionsua. Haur batzuen haserrealdia ikusiko dugu irudietan, jostailuak falta direla ikusten sentitzen duten amorrua... baina azken irudiak, azken esaldiak, “Telebistari begira, irribarre egin du Olentzerok.”, argi eta garbi azpimarratzen dute ipuinaren amaiera lortua eta zorionsua.

José Lambertek dioenez gizartean, hizkuntzen eta literaturen arteko harremanak izaera dinamikokoak ohi dira. Lan hau horren adibidea dugu, are gehiago, Olentzeroren inguruko istorio hau kultur nortasun sortzailatzat hartu behar dugu. Idazlan batzuek entretenitzeko eta une atsegina igarotzek balio dute, beste batzuek horretaz gain zerbait

ikasteko, eta badira balio horiek izateaz gain herri baten nortasuna indartzeko ere aproposak direnak; *Olentzeroren malutak* ipuin eder hau, horren adibide argia dugu.

Xabier Etxaniz Erle